

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 5eko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdi publikoa egiten baita amiantoaren kintzearen kostu ekonomikoak ordaintzeko

BDNS (identifikatzailea): 499400

Amiantoaren kintzeko dirulaguntza.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

1. Udalerrian erroldatuta egotea eta obrak Iruña Okako udalerrian gauzatzea abian den urtean zehar.
2. Eskatzaileak egunean izan behar ditu Iruña Okarekiko zerga betebeharrak.
3. Iruña Okako Udalak beretzat gordetzen du obrak hirigintza legedia betez gauzatu ote diren egiaztatzeko eskubidea.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen xedea da irizpideak ezartzea eta prozedura bat arautzea dirulaguntzak emateko, udalerrian obrak egiten direnean eta amiantoaren ordezt beste material batzuk jarri behar direnean amiantoaren enpresa baimenduen bidez kendu beharrik dakartzan kostu ekonomikoak ordaintzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalen Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2020ko martxoaren 20an eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da inolaz ere 6.000 euro baino gehiago izan; kopuru hori 1720.434.000 partidatik ordainduko da.

Jardunaren kostuaren ehuneko 50 lagunduko da diruz, baina eman beharreko zenbatekoa ez da izango inola ere 1.000 euro baino gehiago.

Dirulaguntzak esleituko dira eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoaren arabera, harik eta aurreikusitako aurrekontu partida amaitu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurtengo abenduaren 31 arte.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Eskabide orria, dirulaguntza zer obratarako den adieraziz.

Eskatzailearen NANaren fotokopia.

Hondakinak kudeatzen dituen enpresak jaulkitako faktura eta ordaindu izanaren frogagiriak.

Hondakinen kudeaketaren enpresa egiaztatuaren ziurtagiria.

Eskabideak Iruña Okako Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako eran.

Aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazi diren betebeharrak, udal honek interesdunei eskatuko die aurkitutako akatsak 10 eguneko epean zuzentzeko; horrela egin ezean, eskabidea artxibatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela iritziko da, beste izapiderik gabe.

Iruña Oka, 2020ko martxoaren 5a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ